




KOMUNIKABIDEETAKO jendearen aurrean herabe, kontzertu batetan baino askoz urduriago, Mikel Laboak, intuizioaren euskal musikariak 12 bat daraman disko berriarekin azaldu da, berari buruz zer esan, nola adierazi oso ondo jakin gabe. Donostiako aukezpenean, oraindik diskoa bere etxean entzun gabe zuen, eta Elkar disketxeko Jose Mari Goikoetxeak hitza pasatu zionean, *zergatik ez duzue ezer probatzen?* esan zien kazetariari, prestatutako aperitiboa dasta zezaten, esplikaezina azaltzeko behar izatetik libratzeko asmoz. Hala ere, ez zion hitzari uko egin, eta kantuei buruzko azalpenak eman zituen.

Mikel Laboaren abentura diskografikoa 1964ean hasi zen, Miarritzen grabatu eta Baionako Goiztiri disketxeak argitaratutako lau kantu herrikoï zituen single harekin. Kasualitatea izanik ere, Mikel Laboak berak dioenez, 12 zenbakia daraman ale berria hogeita bost urte beranduago kaleratu da, zilarrezko ezteiak betetzen dituen urtean, hain zuzen ere, hamabigarren erreferentzia diskografikoa osatuz. Lanetik lanera tarte luzetxoak uzten baditu, gogoratu behar da joan den abenduan, elepe-bilduma bikoitz bat eman zuela argitara, kantu esperimentalak bilduz, «Lekeitioak» izenburupean.



Mikel Laboa, komunikabideen aurrean herabe, baina xarma berezi batez ikutua.

Mikel Laboak hamabigarren alea kaleratu cherokee izpirituaz

Herenegun Donostian eta atzo Bilbon aurkeztu zuen lan berria